

POPBL Astea

2008/10/16

MGEP-eko Espezialitate guztietako ingeniartzako graduko ikasle guztiak beraien lehen proiektuan lanean dihardute. Aste honek duen helburua POPBL (Project Oriented Problem Based Learning) ikaste metodologiak eskatzen dituen prozesuetara eta kontzeptuetara hurbiltzea da .

Aste hau POPBL medologiaren ikaskuntzak eskatzen dituen pauso eta hurrenkeraren arabera antolatu da, hau da, benetako arazo bat abiapuntu harturik, metodologiak eskatzen dituen pauso eta hurrenkera jarraituz, arazoaren ebazpen eta irtenbide bat proposatu eta argudiatuko dute.

Ikasleek ikaste prozesuan trebatzeko hainbat mintegitan hartuko dute parte. Besteak beste:

- Proiektuetan oinarritutako ikaste metodologoa bera.
- Ekipo lana
- Planifikazioarako erremintak
- Bilaketa bibliografikoak
- Komunikazio eraginkorra (ahozkoa zein idatzizkoa)

Ikasleek, ingeniartzako ikasketetan zehar garatuko dituzte zeharkako kompetentzia hauek, eta lantze honek aste honetan du bere abiapuntua

